



Bermeoko Udalak eta Bermeo Futbol Taldeak asteburu honetan Penta futbol zelaian gertatutako eraso arrazistak "irmoki gaitzesten" dituzte

- Honela, Club Portugaleteko jokalariei eta taldeari berari "babes osoa" eskaintzen diete

Bermeon, 2022ko azaroaren 11an.- Bermeoko Udalak eta Bermeo Futbol Taldeak pasa den larunbatean Penta futbol zelaian gertatutako eraso arrazistak eta jarrera desagokiak "irmoki gaitzesten" dituzte. Honela, Club Portugaleteko jokalariei eta taldeari berari "babes osoa" eskaintzen diete. Gainera, Udalak eta herriko futbol taldeak adierazi dutenez, "honelako eraso eta jarrerek ez dute tokirik Bermeon. Herriaren irudia eta clubarena erabat kaltetzen dute eta ez dira inolaz ere onartuko. Elkarrekin lan egingo dugu aurrerantzean honelako jarrera kondenagarriak berriz ere ez gertatzeko".

Pasa den larunbatean Bermeo Futbol Taldeak Club Portugaleteren aurkako partida jokatu zuen Gazteen kategorian. Bertan, zelaian zegoen talde txiki batek portaera desagokiak izan zituen partidari zehar eta, gainera, eraso arrazistak egin zituen. Egoera onartezin hori ikusita, Bermeo Futbol Taldeak Ertzaintzari deitu eta, hauek, gazteak zelaitik aterarazi zituzten. "Gure babes osoa eskaintzen diegu bai erasoak jaso zituen jokalariei eta baita Club Portugaleteri. Irainak jaurti zituzten pertsona hauek ez dituzte herriko zaletu eredugarriak irudikatzen. Ezta gutxiago ere. Gure aldetik zaletu guztiei deia luzatzen diegu partidez orain arte bezala gozatzeri joateko, elkarrenganako errespetu osoz, kirol ikuskizunaz gozatuz eta herri modura merezi dugun irudia emanez", bukatu dute Bermeoko Udalak eta Bermeo Futbol Taldeak.